

## EUSKALKIAK TRABA EDO ALDEKO HAIZE DIRA ANTZERKIAN?



**Ainara Gurrutxaga**

**Dejabu panpin laborategia** konpainiako antzezlea, taula zuzendaria

Kaixo, egunon. Ainara Gurrutxaga naiz eta pozik nago nire bizitzan eskaintzen dudan lehen hitzaldia delako hauxe. Lehen aldiaren zirrarekin, espero dut azalpenak garbiak eta interesekoak izatea.

Euskalkiak antzerkigintzan traba ala aldeko haize ote diren, horixe gaurko elkarrizketa-eztabaidarako amua.

Lehenik eta behin, azken urteetan gure antzerki konpainian, Dejabu panpin laborategian, eginiko ibilbidea azaldu nahiko nizueke. Antzerki konpainia 2001ean sortu genuen, batez ere txotxongiloen munduak erakarrita. Amateurrak ginen orduan baina aktibitate handia genuen, Errenteriako Mikelazulo kultur elkarteari lotuta. Kale antzezlan mordoa sortu genuen, *performanceak*, aretoko ikuskizunak... beti euskaraz, beti taldean sortuta eta maiz sorkuntza bakoitzeko emanaldi bakarra eginez. Jaio eta hil egun berean, xarma handia du.

2005ean erabaki genuen antzerkigintzan sakondu nahi genuela, eta Londresera joan ginen ikastera; antzerki fisikoan eta txotxongilogintzan espezializatu ginen. Duela bost urte itzuli ginen, 2008an, eta *Covek nije ptica-Gizona ez da txoria* antzezlan sortu genuen. Ondoren heldu ziren *Azken portua* (2009), *Errautsak* (2010, Le Petit theatre de Pain eta Artedramarein batera), *Gure bide galduak* (2011) eta *Idazlea zeu zara* (2011). Azken urteetan, gure emanaldiak sortzeaz gain, hainbat kolaborazio ere egin ditugu beste hainbat konpainiarekin, besteren artean Izpurako Haize Berri elkarteak Ander Lipusen zuzendaritzapean eginiko Pierres Lartzabalen *Ibañeta* antzezlanean, Antzerkiola Imaginarioaren

*Babiloniako Loreak, Tanttakaren Arrainen bazka, Anakrusaren Tempus-i, Metrokoadrokaren Herio Heroi eta Huts teatroaren Publikoari Gorroto antzezlanetan.*

Lehen aldia da azken urteetako sormen lanak zerrenda batean jartzen ditudala, eta ni neu harritu naiz konturatuta eginiko sorkuntza guztiak euskaraz izan direla, euskaraz pentsatuak eta euskaraz gauzatuak! Ikusita egun lan molde hau ez dela oso ohikoa, pribilegiatu sentitzen naiz euskaraz sortzeko aukera izan dudalako.

Eta sormen prozesu horietan euskalkiekin izandako harremana azaltze aldera, bi kontu aipatu nahiko nituzke, uste baitut baldintzatzailleak direla:

1. Gure konpainian ez dugu sekula idatzitako antzezlanik oholtzaratu. Antzez testua antzezle taldeak sortzen du arian. Laborategiaren ideiatik abiatuta, mugimenduek, musikak, pertsonaiek, objektuek... testuaren mailako garrantzia dute sormen prozesuan. "Mahaiko lana" deitzen zaiona, hau da, gidoia finkatzea, sormen prozesuaren amaieran egiten dugu. Lan egiteko modu honek ikaragarri markatzen du testuarekin dugun harremana, euskalkietan izan ala batuan izan.
2. Oreretakoak gara, hiri batekoak beraz, eta oraindik grabeagoa dena, ikastolakumeak (kar,kar). Zer esan nahi du horrek? Gure euskalkia litzatekeena, gipuzkera, galduta dugula. Batuaren eta euskalkiaren arteko muga oso lausoa da guretzat, ez dakigu bereizten. Konplexu txiki bat ere badago hor, iruditzen baitzaigu antzerkirako *glamour* gehiago duela bizkaierak edo zubererak... Horiek bai exotikoak!

Konplexuak konplexu, egia da hizkuntzarekiko erabakiak etengabekoak izan direla, ezinbestean, gure antzezlanetan. Batzuetan euskalkien aldeko apustua egin izan dugu, besteetan batuaren aldekoa, edo nahasian erabili ditugu. Aldian-aldean, hizkuntzaren erabileraren gaineko erabakiak hainbat arrazoiengatik hartu ditugu: dela arrazoi estetiko-artistikoengatik, dela arrazoi praktikoengatik. Hona hemen zenbait adibide:



### **'GIZONA EZ DA TXORIA' (2008)**

Simon baserritar euskaldunaren eta Selma bosniarraren arteko harremana kontatzen da lan honetan. Abiadura handiko trena egin behar dutela eta, haren baserritik bota dute Simon eta orain herrira jaitsi da, pisu umel batera. Gaixorik dagoela eta, familiak bosniar erizain bat kontratatu du hura zain dezan. Simonek, ordea, jada bere imaginarioan besterik existitzen ez den Larraundira itzultzeko asmoa ezin du burutik kendu, eta, ezustean, haren lurretik urundu den Selam izango du konplize eta bidelagun.

Antzezlan honetan euskara eta bosniera dira hizkuntza nagusiak. Oiartzunen kokatua dago kontakizuna eta, beraz, oiartzueraz egiten du Simon zaharrak. Horretarako, istorioaren inspirazio izan zen lagun baten osaba elkarrizketatu genuen eta haren doinua eta hizkera landu zituen Simon interpretatzen duen aktoreak. Euskara itxi horrek lagundu zigun bi pertsonaien arteko ulermen zailtasunaren sentazioa areagotzen, baita hemengo ikusleentzat ere. Ikuslea, horrela, Selmaren ikuspuntura gerturatu nahi genuen. Era berean, hainbat poema ere erabiltzen dira ikusgarrian, eta horiek euskara batuan esanak dira, off-eko ahotsean. Beraz, kasu honetan euskalkia baliagarria izan zitzaigun oso pertsonaia kokatzeko (Oiartzun) eta definitzeko (baserritarra). Antzezlanaren poetika markatzen zuten hitzak batuan esan genituen, narratzaile orojakile gisa, eszenatik distantzia bat markatzeko.

## **'ERRAUTSAK' (2010)**

Manexek jada aipatu du antzezlan hau. Kasu honetan garbi genuen hasieratik aktore bakoitzak euskalki batean egingo genuela. Euskal kuadrilla bat irudikatu nahi genuen, eta, beraz, oso gertuko harremana izango zuten. Euskalki bat baino gehiago erabiltzeak zentzu metaforiko bat ematen zion lanari nire ustez, alegiazko kuadrilla hori sortuz. Euskaltasunari buruzko lan honetan hautu estetiko bat izan zen, beraz, euskalkien erabilera.

Aipa dezaket baita ere testua prozesuaren amaieran finkatu genuela eta aktoreen inprobisazioetatik sortu zirela pertsonaiak eta egoerak. Niri Pili-ren pertsonaia nafarreraz egitea egokitu zitzaidan, ama bertakoa dudalako. Hala ere, nafarreraz inprobisatzeko gaitasunik ez dudanez, nire euskarari egin nuen sormen prozesua eta azken etapan pasatu nuen testua nafarrerara.

## **'GURE BIDE GALDUAK' (2011)**

Antzezlan honetako bost aktoreak gipuzkoarrak izanik, lanaren prozesu guztia norberak bere euskarari egin genuen. Amaiera aldean, "mahaiko lanaren" hasieran, testua finkatzeko momentua iritsi zenean hainbat eztabaida izan genuen taldean. Bagenuen gogoia euskalkietan lan egiteko. Nafarroako herri txiki batetik Orereta industrializatura maistra ikasketak egitera datorren Kattalin-en istorioa kontatzen da lanean. Beraz, Kattalinek nafarreraz egitea ederra litzatekeela adostu genuen. Nik jokatzeko nuen pertsonaia eta, beraz, posible zen hala egitea.

Gerora etorri ziren logikarekin borroka. Lehen eszenan Kattalin haren amarekin agertzen da herrian, eta ondoren Oreretan osabarekin. Logikaz amak eta osabak ere nafarreraz egin beharko lukete. Generazio kontuengatik, gainera, amak eta osabak euskalki itxiagoan. Bi pertsonaia horiek jokatzeko zituzten antzezleek, ordea, ez zuten nafar-euskalkiaren erreferentziarik. Moldatu genituen hainbat testu, grabatu genituen, eta saiatu ginen amarekin eta osabarekin. Baina konturatu ginen oso zaila zela. Antzezleei benetan zaila egiten zitzaien. Gainera, lantzeko denborarik ere ez genuela ikusita, guztia batuan egitea erabaki genuen (gure euskarari, gipuzkera batuan). Kasu honetan, beraz, kontu praktikoengatik euskalkien erabilera baztertu egin genuen.

*Dejabu panpin laborategian* sortu ditugun hainbat antzezlanari begiratuta, beraz, ondoriozta dezaket kasu kasu erabili izan ditugula batua eta euskalkiak. Antzezlanaren izaera eta helburuak kontuan hartuta eta ahalmenak aintzat izanda egin izan ditugu hizkuntzazko hautu horiek.

Dudarik gabe, antzerki testuetan hizkuntzaren erabilera bizia egitean datza benetako erronka. Hitzak izan daitezela gorputzaren eta arimaren arteko lotura, eta lagun diezaiotela oholza gainean dagoenari bizi txinpartak eragiten. Eta hori lor daiteke batuan edo euskalkietan berdin.



## **EUSKALKIEK ANTZEZLEAREN ESPRESIOA ZABALTZEN DUTE**

Egia da azken urteetan izandako esperientzietan ohartu naizela euskalkiak altxor bat direla antzezleontzat. Euskalkiek beren baitan doinu bat, musika bat dakarte eta, beraz, antzezlea musika horretan dantzatzera gonbidatzen dute. Antzezleari bere ohiko moldeetatik ateratzen laguntzen diote. Gainera, doinu horrek, hiztegi berri horrek, gauzak azaltzeko modu berezi horrek... imaginario berri bat zabaltzen dio antzezleari.

Gainera, antzezlea behartzen dute nahi eta nahiez behatzaile bilakatzera, beste errealitate bat tentu handiz behatu eta jasotzera. Antzezlea bere erroetara itzultzen da horrela: aurreiritzirik gabe bizitzaren behatzaile fin izatera, jasotakoa eraldatu eta artelana sortzeko ondoren.

Antzerkian tradizio handikoak diren maskarekin alderatuko nituzke euskalkiak. Maskarek antzezleari bere formatik ateratzen laguntzen diote, beste gorpuzkera bat, beste ahots tonu bat erabiltzen. Antzezlea jolas horretan sartzen bada, bere espresio aukerak ikaragarri zabaltzen dira, bere ohiko forma gainditzeko aukera ematen baitiote. Euskalkiekin gauza bera gertatzen da, euren kodeak eta arauak onartuta, adierazpen aukera brutalak eskaintzen dituzte.

## NORBERARENA EZ DEN EUSKALKI BATEAN ARITZEAREN ABENTURA

Eta bai, euskalkiak altxorrek dira... baina zer gertatzen da pertsonaia bat zurea ez den euskalki batean landu nahi baduzu? Abentura eder bezain oztopoz jositakoari egin beharko diozula aurre. Hasieran aipatu dudanez, gipuzkoarra, hiritarra eta ikastolakokumea naizen neurrian, ez dut euskalki propiorik barneratuta eta, beraz, haiekin lan egitea erabaki dudan edo egokitu zaidan bakoitzean, lanketa handia egin behar izan dut. Nire esperientzian hainbat fase errepikatzen direla frogatu ahal izan dut.

### 1. KONPLEXUAK GAINDITZEA:

Hasieran, antzezleak uste du ezinezkoa dela berea ez den euskalkian lan egitea, arrotza egiten zaio doinua, ahoskera, hiztegia... Errespetu handiegia die. Lehen fasean, beraz, pertsuasioa erabiliko du zuzendariarekin eta lantaldearekin euskalkien erabilera errotik bazter dadin, betiere beldurrak ezkutatu eta argudio artistikoetara joz: "Pertsonaia honek oso txikitzen egin zuen alde hirira eta nik uste jada guztiz galdua edukiko lukeela euskalkia. Gainera, mutil-laguna atzerritarra izanik normala da...." eta abar. Pertsuasio saioak porrot eginda, antzezlea konturatzen da hobe duela jarrera aldatu eta euskalki ezezagun batean lan egiteak eskaintzen dion "erronka artistiko" berriari esker onez eta irribarretsu ekin. Nafarreraz egin dezakeela sinistu du eta badoa ama nafarrarengana: "Ama, badakizu *Errautsak* antzezlana egingo dugula, ba bakoitzak euskalki batean egingo du eta nik... nik nafarreraz egingo dut. Zubiteraz". Amak begiratzen du eta barre algaraz hasten da: "Nafarreraz, nork, zuk?" eta barrez jarraitzen du. Antzezlea bere autoestimuari heldu nahian "Bai nik. Gainera ez da hain zaila izango."

### 2. GANTXOA TOPATZEA:

Euskalkien altxorra ez duzu liburuetan topatuko, ez dokumentaletan, ez eta filmetan ere. Antzerkirako behar duzun testua euskalki batera pasatu eta ahoskera lantzeko modu bakarra dago: gantxo bat topatzea. Landu nahi duzun euskalki horren jabe den norbait. Eta gantxoak oso-oso zorrotzak izaten dira, normalean ez dira prest egoten euren altxorra edozein modutan partekatzeko!

Gidoia eta grabagailua alboan duela, hizkuntzalari-antropologoaren tankera hartzen dio antzezleak bere buruari. "Nola esango zenuke:

Arratsalde on, zer izango da?” Eta gantxoak: “Atsaldeon, ze zanen da?”. Apuntatuta. “Eta: Badaude kroketak, gazta kroketak, urdaiazpiko kroketak eta bakailao kroketak...”. Eta gantxoak: “Ezinezkoa da hori esatea”. Antzezle-antropologoak: “Nola ezinezkoa dela? Gantxoak: “Zubietan ez dago bakailao kroketarik!”. Antzezle-antropologoak bere buruari gantxotzat ama zergatik hartu duen galdeginenez “Berdin du, ama. Nik hiru gauza eskaini behar ditut eszenan, erritmo kontuengatik. Ea ba, nola esango zenuke?” Ama-gantxoak: “Ez nuke esango”. Orduan konturatzen zara antzez-testu guztia euskalkiratzea nolako odisea izango den.

### 3. EKINTZAREN MOMENTUA:

Orduak pasatu ditu antzezleak grabagailuarekin esan beharreko hitzen doinua eta ahoskera lantzen. Estreinatuta da lana, eta antzerkiak berezkoak dituen momentu horiek sortzen hasten dira: inprobisatutako momentuak. Dela antzezle kideak bere testua aldatu duelako, dela ezustekoren bat gertatu delako... idatzita ez zenuen zerbait esan behar duzu, zerbait koherentea, hariari jarraituko diona... eta noski zurea ez den euskalki horretan. Eta antzezleak ikusten du bere burua dakizkien esaldi horien artean arakatzen, momentua salbatzeko: “Atsaldeon, ze zanen da?” esango du eta ez doa guztiz momentuarekin baina behintzat mantendu du euskalkiaren doinua eta izaera. Uf.

### 4. KRITIKAK

Emanaldiaren ondoren erabili duzun euskalkiaren jabe diren hainbat ikusle etorri dira. Bazoaz haiengana, irribarre batekin, eta galdetzen diezu: “Eta, zer iruditu zaizue? Ondo egin al dut zubiteraz?”. Elkarri begiratzen diote Zubietarrek eta isiltasun luze baten ondoren entusiasmo handirik gabe erantzuten dizute “Ondo, bai, pasable”.

Eta orduan badatorkizu hizkuntzalari aditua eta eskerrak ematen dizkizu egin duzun lanarengatik. Antzezlea harrotu egin da. Adituak esaten dio: “Ze bikaina Baztango hizkera hori!”. Antzezleak zapuztuta eta pittin bat masail-gorrituta erantzuten dio “bai, tira, ez zen Baztangoa... Malerrekakoa zen...”. Eta hark “A, bai... Zer, Doneztebe aldekoa? Eta antzezleak “ Kilometro batzuk haratagokoa, Zubietakoa”, eta adituak “A,

bai, bai, argi eta garbi. Aizu, baina zerbaitek despistatu nau: Zubietan ez da sekula egon bakailao kroketarik”.

Tira, horiexek antzezle baten kalamidadeak, kar, kar.



## ONDORIOAK

Amaitzeko, hasieran amu gisa erabilitako galderari erantzuten saiatuko naiz: euskalkiak aldeko ala kontrako haize dira antzerkian?

- EUSKALKIAK PLAZER BAT DIRA. Antzezleari euskalkietan lan egiteak aukera espresibo berri asko zabaltzen dizkio. Gainera, behatzaile bilakatzen du halaberrez.
- Sentsazioa daukat BATUAREKIN badagoela bidea egiteko, kluxe ugari dugulako oraindik ere (ziur aski telebistak gauzak esateko modu bat markatu duelako, *kulebroi* estilora). Batuan lan egitean agerikoago gelditzen da zenbait antzezlek telebistatik hartutako *tonu* hori, eta lanak izaten dira hori kentzen. Beraz, batuari ere bere bixitasuna ematea erronketako bat izango litzateke.



- ESTANDARIZAZIOAK SAIHESTU. Antzerkian estandarizazioak edo modek kalte handia egin izan dutela iruditzen zait. Izan da moda dena batuan egitekoa, dena telebistan bezala egitekoa, edo aktore bakoitzak bere euskalkian egitekoa. Garrantzitsuena lanaren barne koherentzia da, eta hizkera koherentzia estetiko horren barnean sartu behar da.

### **Eta beraz...**

Hizketaldi honetan azaldutakoen arabera, galdera nagusiaren erantzuna nahiko agerikoa da: euskalkiak tresna apartak dira noski, baldin eta modu egokian erabiltzen badira. Eta antzerkian egokia den hizkera, nire ustez, komunikazio bizi bat ahalbidetzen duen hori da, antzezleari sortzeko eta hizkuntzarekin jolasteko aukera ematen dion hizkera hori. Kasuan kasu euskalkia izan daiteke edo baita batua ere noski. Antzezlan bakoitzari mesede egingo dion hizkera hautatzea da kontua.

Dejabu panpin laborategian sakonki markatu gaituzten euskal antzezlanak zerrendatuko banitu, aipatu beharko nituzte Antzerkiola Imaginarioaren lanak (*8 olivetti poetiko, Mundopolski, Yuri Sam*), Hiru Puntturenak (*Tu quoque filie, Fausto*), Le petit theatre de Pain taldearenak (*Juglarea, puta eta eroa, Aulki Hutsa*) besteren artean. Eta horietatik batzuek euskalkiak erabili zituzten eta beste batzuek batua, edo bietarik. Guztiek ezaugarri komun bat izan zuten, hori bai: hizkera bizia, zorrotza, jostaria eta ziztatzailea erabili zutela.